LEKUNBERRI AROSTEGI, MARIA MERCEDES (1, guztira 3)
Hirugarrena
Sinaduraren data: 03/06/2026
HASH: [redacted]

Mikel Fulka Fuentes (2, guztira 3)
Idazkari Orokorra / Secretario General
Sinaduraren data: 03/06/2026
HASH: [redacted]

Miren Edurne Espilla Etxebarria (3, guztira 3)
Zinegotzia / Concejala
Sinaduraren data: 03/06/2026
HASH: [redacted]

Galdakaoko Udala

HITZARMENA / CONVENIO

6069/2026 Esp.

Lankidetza hitzarmena / Convenio de colaboración

BILDU DIRENAK	REUNIDOS
ALDE BATETIK, Miren Edurne Espilla Etxebarria andrea, Galdakaoko Udaleko Kultur arloko zinegotzi delegatua den aldetik, uztailaren 13ko 2023-1567 dekretuak emandako ahalmenak baliatuz,	DE UNA PARTE, Dña. Miren Edurne Espilla Etxebarria en calidad de Concejala delegada de Cultura del Ayuntamiento de Galdakao, actuando en virtud de las facultades otorgadas por el Decreto 2023-1567 de 13 de julio,
BESTE ALDETIK, Mercedes Lekumberri Arostegui (NAN: [redacted] GALDAKAOKO ARETO DANTZA ELKARTEAren, IFK G-95165981, eta elkartearen helbidea, Bizkai 9 2B. (48960 Galdakao)- presidentea den aldetik; entitate horren izenean eta ordezkari gisa, bere Estatutuetan jasota dagoen bezala.	Y DE OTRA, D. Mercedes Lekumberri Arostegui, con D.N.I. [redacted] presidenta de la ASOCIACION GALDAKAOKO ARETO DANTZA ELKARTEA con CIF G-95165981 y domicilio social en la calle Bizkai 9 2B (48960 Galdakao), la cual lo hace en nombre y representación de dicha entidad, conforme a lo referido en los estatutos de la misma,
ADIERAZI DUTE	MANIFIESTAN
Lehenengoa.- Erakunde eskatzailea irabazi asmorik gabeko elkartea da eta Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta dago 2001eko irailaren 13ko dataz. Izan ere, bere helburuen artean dago, dantzaren teknikaren bidez ikasteko eta pertsona gisa aberasteko jarduerak egitea.	Primero.- La entidad solicitante es una asociación sin ánimo de lucro inscrita en el Registro Municipal de Asociaciones, adscrito a Cultura, con fecha 13 de septiembre de 2001, y entre cuyos objetivos figura realizar actividades encaminadas al aprendizaje y enriquecimiento personal mediante la técnica de la danza.
Bigarrena.- Aipatutako elkarteak, 2026ko ekainaren 2ko dataz, dirulaguntza eskabidea aurkeztu zuen ondoko programa egiteko: • Areto-dantzen irakaskuntzari eta erakustaldiari lotutako kultura-jarduerak antolatzea.	Segundo.- La citada entidad presentó el 2 de junio de 2026, la solicitud de ayuda económica, para la realización del siguiente programa: • Organización de actividades de carácter cultural en relación a la enseñanza y exhibición de bailes de salón
Eskabide horri ondoko dokumentuak erantsi dizkio: burutu nahi den proiektua edo programa, aurreikusitako diru-sarrera eta gastuen aurrekontua eta eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa; Galdakaoko udalaren esku dauden eta horiek aurkeztean aldatu dituzten inguruabarrik ez duten dokumentuen erantzukizun-adierazpena.	A dicha solicitud acompaña los siguientes documentos: proyecto o programa que se pretende acometer, presupuesto de ingresos y gastos previstos y cuantía de subvención solicitada, y declaración responsable de los documentos que obran en poder del Ayuntamiento de Galdakao sin que hayan variado las circunstancias existentes en el momento de su presentación.

HITZARMENA
Zenbakia: 2026-0012 Data: 03/06/2026

Baliozkotze Kod.: [redacted]
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 9

Hirugarrena.- Erakunde eskatzaileak dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako onuradun izaera lortzeko debekurik ez duela eta dirulaguntzak edo administrazio edo zigor bidetik zehatu ez izana, administrazioaren laguntzak lortu ahal izateko aukera galduz, aitortzen duen erantzukizun-adierazpena aurkeztu du, sexu, arraza edo erlijio arrazoiengatiko diskriminazioa egin izanagatiko zehapenak barne.

Era berean, Galdakaoko Udalak, datuen bitartekaritzarako plataformen bidez, ofizioz egiaztatuko du elkarte onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak

Laugarrena.- Galdakaoko Udaleko aurrekontuan, 2026ko ekitaldirako, 2.700,00 euroko izendun dirulaguntza dago aurreikusita GALDAKAOKO ARETO DANTZA ELKARTEArentzat, 23.3341.481.11 zenbakidun aurrekontu partidan zordunduta.

Bosgarrena.- Kultura, Gazteria eta Kiroletako arduradunaren aldez aurreko txosten bat dago (2026/06/03).

Azaldutako guztiaren ondorioz, alderdi biek, ados daudela, Lankidetza Hitzarmen hau izenpetzeko interesa adierazi dute, hurrengo klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Helburua.

Hitzarmen honen helburua Galdakaoko Udalaren eta GALDAKAOKO ARETO DANTZA ELKARTEAren arteko lankidetzaren erregimena eta baldintzak arautzea da:

- Areto-dantzen irakakuntzari eta erakustaldiari lotutako kultura-jarduerak antolatzea.

Tercero.- La entidad solicitante ha presentado declaración responsable de no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria previstas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, de 17 de noviembre, y de no haber sido sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, incluidas las sanciones por incurrir en discriminación por razón de sexo, raza o religión.

Asimismo, el Ayuntamiento de Galdakao, a través de las plataformas de intermediación de datos, comprobará de oficio que las asociaciones beneficiarias se hallan al corriente en sus obligaciones tributarias y al corriente de pagos con la Seguridad Social.

Cuarto.- Que el presupuesto del Ayuntamiento de Galdakao para el ejercicio 2026 incluye una previsión de 2.700,00 euros para la subvención nominativa a favor de la ASOCIACION GALDAKAOKO ARETO DANTZA ELKARTEA con cargo a la partida presupuestaria nº 23.3341.481.11.

Quinto.- Existe un informe previo del responsable de Cultura, Juventud y Deportes (03/06/2026).

Por lo expuesto, ambas partes, de mutuo acuerdo, manifiestan su interés en la suscripción del presente Convenio de Colaboración de conformidad con las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto.

El objeto del presente Convenio es regular el régimen y los términos de la colaboración del Ayuntamiento de Galdakao y la ASOCIACION GALDAKAOKO ARETO DANTZA ELKARTEA con el fin de garantizar la realización del programa:

- Organización de actividades de carácter cultural en relación a la enseñanza y exhibición de bailes de salón

HITZARMENA
Zenbakia: 2026-0012 Data: 03/06/2026
Baliozkotze Kod.: [redacted]
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico/GestionaPlataformatikElektronikokiSinatutakoDokumentua | 2. orrialdea, guztira 9

BIGARRENA.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

Galdakaoko Udalak aurreko klausulan deskribatutako erakunde onuradunaren jarduera diruz lagunduko du, 2.700,00 euroko ekarpena eginda.

Zenbateko hori egiazkotzat jotzen da (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

SEGUNDA.- Cuantía de la subvención.

El Ayuntamiento de Galdakao contribuirá al sostenimiento de la actividad de la entidad beneficiaria descrita en la cláusula anterior, con una aportación de 2.700,00 euros.

Dicha cantidad se considera importe cierto (art. 32 de Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza ordaintzea.

Erakunde onuradunari eman beharreko dirulaguntza ordainketa bakar batean egingo da eta justifikazioa aurkeztu aurretik, bermerik ordaintzea eskatzen ez delarik.

TERCERA.- Pago de la subvención.

El pago de la subvención a la entidad beneficiaria se realizará en un solo pago y con carácter anticipado a la justificación, no exigiéndose la constitución de garantía alguna.

LAUGARRENA.- Programaren edo jardueren publizitatea

4.1.- Elkarte onuradunak programako gastuak hartuko ditu bere gain, baita ekintzen publizitatea egiteak dakartzan gastuak ere.

Elkarte onuradunak jakinarazi beharko du dirulaguntza jaso duen programaren publizitatea egiten duenean programak Galdakaoko Udalaren babesa jaso duela.

Era berean, Hitzarmen honek duen helburuko programa zabaltzeko egingo den publizitatea euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da nahitaez.

4.2. – Publizitatean, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea eta haren ondorengo aldaketak betez, ezingo da tabakoaren kontsumoa sustatu, ezein modutan (34. artikulua), era berean, ezin izango da edari alkoholdunen kontsumoa sustatu, aipatutako Legean zehazten diren baldintzetan (26. artikulua eta hurrengoak).

CUARTA.- Publicidad del programa o actividades

4.1.- La asociación beneficiaria asumirá los gastos de la realización del programa así como los gastos generados por la publicidad de las mismas.

La asociación beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad a la financiación por el Ayuntamiento de Galdakao del programa o actividades objeto de subvención.

Asimismo, será de obligado cumplimiento la redacción en euskera o en euskera y castellano de la publicidad que se realice con objeto de difundir el programa objeto de este Convenio.

4.2.-En su publicidad, y en cumplimiento de la Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias y sus posteriores modificaciones, no se podrá promocionar el consumo de tabaco en ninguna de sus formas (artículo 34) ni de bebidas alcohólicas en los términos que se concretan en la citada Ley (artículos 26 y siguientes).

HITZARMENA
Zenbakia: 2026-0012 Data: 03/06/2026
Baliozkotze Kod.: [redacted]
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 9

4.3.- Jardueren publizitatean, eta 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena betez, lengoaiaren erabilera ez-sexista egin beharko dute. Era berean, pertsonak ezin izango dira aurkeztu giza duintasunaren aldetik gehiago edo gutxiago balira bezala, sexuaren arabera, edo objektu sexual huts bezala; modu berean, ezin izango da justifikatu, hutsal gisa tratatu edota emakumeen aurkako indarkeria bultzatu.

4.3.-En la publicidad de las actividades, y en cumplimiento del DECRETO LEGISLATIVO 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, deberán realizar un uso no sexista del lenguaje, asimismo no podrán presentar a las personas como inferiores o superiores en dignidad humana en función de su sexo, o como meros objetos sexuales, así como justificar, banalizar y/o incitar a la violencia contra las mujeres.

4.4.- Dirulaguntza izan duten jardueren zabalkundeari dagokionez, entitate onuradunak dituen betebeharrak eragotzi gabe, jasotako dirulaguntzen berri eman beharko du, hain zuzen, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezarritako eran eta baldintzetan. Lege horretako 5.4 artikuluan dagoen aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru Laguntzen Datu-base Nazionala izango da bitarteko elektronikoa publizitate-arloko betebeharrak betetzeko.

4.4.- Sin perjuicio de las obligaciones respecto a la difusión de las actividades subvencionadas, la entidad beneficiaria deberá dar publicidad de las subvenciones percibidas en los términos y condiciones establecidos en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. En el caso de que se haga uso de la previsión contenida en el artículo 5.4 de la citada Ley, la Base de Datos Nacional de Subvenciones servirá de medio electrónico para el cumplimiento de las obligaciones de publicidad.

BOSGARRENA.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

QUINTA.- Gastos subvencionables.

5.1.- Dirulaguntza izan dezaketen gastuak dira diruz lagundutako jardueraren izaerari argi eta garbi erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta dirulaguntzaren justifikazioan garatutako jardueren memorian sartzen direnak.

5.1.- Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se incluyan en la memoria de actividades desarrolladas en la justificación de la subvención.

5.2.- Prometan dirulaguntza izan dezaketen gastuak zerbitzuen edo horniketen kontratazioa justifikatzen dutenak izango dira, hala nola animazioa, birsorkuntza, musika, zerbitzu edo ekipamenduetako sarrerak, garraioa, jarduera egiteko erositako materiala, hizlarientzako dietak, parte-hartzaileak edo saritutako pertsonak, irakasleen/begiraleen kontratazioa, garaikurrak, jardueren publizitate-gastuak....

5.2.- Los gastos subvencionables en los programas serán los que justifiquen la contratación de servicios o suministros, tales como animación, recreación, música, entradas a servicios o equipamientos, transporte, material adquirido para la realización de la actividad, dietas para conferenciantes, participantes o personas premiadas, contratación de profesorado/monitoreado, trofeos, gastos de publicidad de las actividades,….

HITZARMENA
Zenbakia: 2026-0012 Data: 03/06/2026
Baliozkotze Kod.: [redacted]
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 9

5.3.- Orokorrean, gastronomia izaerako gastuen bidez egindako justifikazioak ez du emandako zenbatekoaren bostena gainditu ko, proportzionaltasun bat izan dezan eta dirulaguntzaren helburua indargabetu ez dadin. Salbuespeneko kasuetan, kontzeptu honetan gastu handiagoa behar dutenean, gastuaren zertarakoa, programan proposatutako helburuekin duen zerikusia eta beste kontzeptu bidez justifikatzeko duen zailtasuna zehatz-mehatz azaldu beharko da.

5.3.- Con carácter general, la justificación mediante gastos de carácter gastronómico, no superará la quinta parte del importe concedido, al objeto de guardar una proporcionalidad y no desvirtuar el objeto de la subvención. En casos excepcionales, que requieran un gasto superior en este concepto, se deberá explicar detalladamente el destino del gasto, su relación con los objetivos propuestos en el programa y la dificultad de justificarlo mediante otros conceptos. De este modo se estudiará cada caso en particular.

SEIGARRENA.- Beste dirulaguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna.

SEXTA.- Régimen de compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

Erakunde onuradunak jakinarazi egin beharko du beste dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik lortu duen, diruz lagundutako programa finantzatzeko.

Deberá de comunicarse por parte de la entidad beneficiaria la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien el programa subvencionado.

Galdakaoko Udalak emandako dirulaguntza bateragarria izango da Elkarteak beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik helburu bererako jasotako dirulaguntzekin. Edozein kasutan ere, dirulaguntzen bitartez edo beste iturri batzuetatik lortutako finantzazioaren kopuru osoak ezin izango du diruz lagundutako programaren kostua gainditu.

La subvención del Ayuntamiento de Galdakao será compatible con las de otras administraciones o entes públicos o privados para la misma finalidad. En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida, por subvenciones y otras fuentes, no podrá resultar superior al coste del programa subvencionado.

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko epea

SÉPTIMA.- Plazo de justificación de la subvención.

Erakunde onuradunak jasotako diruen aplikazioa justifikatu beharko du, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik, edo, bestela, hitzarmen hau sinatu den biharamunetik hasita 2 hilabeteko epean, baldin eta hitzarmen hau proiektua edo diruz lagundutako jarduera amaitu ostean sinatzen bada.

La entidad beneficiaria deberá justificar, la aplicación de los fondos percibidos, en un plazo inferior a los 2 meses contados desde la finalización de la actividad subvencionada o, en su caso, contados a partir del día siguiente al de la fecha del presente convenio, cuando ésta sea posterior a la conclusión del proyecto o la actividad subvencionada.

ZORTZIGARRENA.- Dirulaguntza justifikatzeko era.

OCTAVA.- Forma de justificación de la subvención.

Erakunde onuradunak ezarritako baldintzak bete dituela eta diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatu duela egiaztatu beharko du.

La entidad beneficiaria estará obligada a acreditar el cumplimiento de las condiciones impuestas y de la realización del proyecto o actividad subvencionada.

Dirulaguntza justifikatzeko balio juridikoa izango du ondoko dokumentuak dituen Justifikazio-kontu Erraztuak:

Tendrá validez jurídica para la justificación de la subvención la Cuenta Justificativa Simplificada que contenga los siguientes documentos:

HITZARMENA
Zenbakia: 2026-0012 Data: 03/06/2026
Baliozkotze Kod.: [redacted]
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/es/Publico/Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 9

a) Ziurtagiria, dirulaguntza eman zeneko helburua, aurkeztutako proiektuaren arabera bete dela ziurtatuz. (Udalak emaniko ereduaren arabera).

a) Certificación, de que ha sido cumplida la finalidad para la cual se otorgó la subvención, conforme al proyecto presentado. (Según modelo que será facilitado por el Ayuntamiento).

b) Jarduketaren memoria, egindako jarduerak eta izandako emaitzak aipatuz.

b) Memoria de actuación, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

c) Programa burutzeari dagozkion diru-sarrera eta gastu guztien balantzea, beste erakunde, entitate edota pertsona publiko edota pribatuen aldetik jasotako bestelako laguntzak edota dirulaguntzak zehaztuz. Balantzea idazkariak izenpetuta eta Entitate Onuradunaren Presidenteak ontzat emana egon beharko da. (Udalak emaniko ereduaren arabera).

c) Balance de todos los ingresos y gastos correspondientes a la ejecución del programa, detallando las ayudas y/o subvenciones concedidas y/o recibidas para el programa solicitado procedentes de otras instituciones, entidades y/o personas públicas y/o privadas, suscrito por el/la Secretario/a con el visto bueno del/de la Presidente/a de la Entidad beneficiaria. (Según modelo que será facilitado por el Ayuntamiento)

d) Beste Erakunde Publiko batzuek dirulaguntzak edo laguntzak emandako erabakien kopia.

d) Copia de los acuerdos de concesión de subvenciones o ayudas por otras Instituciones Públicas.

e) Gastuen fakturak gastuen kopuru osoak emaniko dirulaguntzaren zenbatekoaren bestekoak, gutxienez, izan beharko dira, dirulaguntza egoki erabili dela nabarmena izan dadin. Justifikatzea zaila den gasturik izanez gero, gastuaren frogagiriak onartuko dira (adibidez: tiketak, barik...), gehienez diruz lagundutako kopuruaren %10eraino eta inoiz ere 200,00 eurotik gora.

e) Facturas originales de los gastos y fotocopias de las mismas, hasta el importe, como mínimo, de la subvención concedida, como muestra que permita obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención. En el caso de gastos de difícil justificación se admitirán comprobantes de gasto (por ejemplo, tickets, barik,…) por un importe máximo del 10% de la cantidad subvencionada y, en ningún caso mayor a 200,00€.

f) Hitzarmen honen xede den programa zabaltzeko egingo den publizitatea; bertan Galdakaoko Udalaren babesa izan dela agertu beharko da. Era berean, publizitate guztia euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da nahitaez.

f) Ejemplar de la publicidad realizada al objeto de difundir la actividad o el programa subvencionado donde aparezca expresamente el patrocinio del Ayuntamiento de Galdakao. Toda la publicidad realizada deberá redactarse en euskera, o en euskera y castellano.

Programa zabaltzeko egingo den publizitateak bat egingo du bai forma bai iraupenez diruz lagundutako helburuarekin. Dirulaguntza ematen duen entitatearen irudia hala nola finantziazioari dagozkion leiendak txertatuko dira kartel, plaka oroigarri, inprimatutako material, euskarri elektroniko edo orokorrean edozelango komunikabideetan.

Las medidas de difusión deberán adecuarse al objeto subvencionado, tanto en su forma como en su duración, pudiendo consistir en la inclusión de la imagen institucional de la entidad concedente, así como leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

HITZARMENA
Zenbakia: 2026-0012 Data: 03/06/2026
Baliozkotze Kod.:
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 9

g) Gastua hobeto justifikatzeko Udalak eska dezakeen beste edozein dokumentazio, adibidez, erantzukizun-adierazpena, bertan aurkeztutako fakturak jatorrizkoak direla adieraziz eta konpromisoa, faktura horiek beste entitate publiko zein pribatutan ez aurkezteko, laguntza justifikatzeko dagokion balidaziorik gabe.

g) Cualquier otra documentación que el Ayuntamiento pudiera requerir en orden a la mejor justificación del gasto, como una declaración responsable en la que se indique que las facturas presentadas son originales y compromiso de no presentar dichas facturas ante cualquier otra entidad pública o privada a efectos de justificar una ayuda sin la validación correspondiente.

BEDERATZIGARRENA.- Zehapen-araubidea.

NOVENA.- Régimen sancionador.

Dirulaguntzen arloan, administrazioko arau-hausteak dira, Legean eta dirulaguntzak ematea arautzen duten Ordenantza orokorraren 47, 48 eta 49 artikuluetan tipifikatuta dauden egitateak eta ez-egiteak. Zehazki, arau-hauste arina da jasotako diruei emandako aplikazioa frogatzen duten kontuak epez kanpo aurkeztea.

Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones las acciones y omisiones tipificadas en la Ley y en los artículos 47, 48 y 49 de la Ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones. En concreto constituye infracción leve la presentación fuera de plazo de las cuentas justificativas de la aplicación dada a los fondos recibidos.

HAMARGARRENA.- Dirulaguntzaren kontrol finantzarioa.

DÉCIMA.- Control financiero de la subvención.

Entitate onuradunari eman zaion dirulaguntzarekin egingo dituen jarduerak egiaztatu eta horien jarraipena egingo dio Udalak, egoki irizten dionean. Horrez gain, kontrol organo eskudunek egoki iritzitako egiaztatze eta finantza-kontrol jarduerak egingo dituzte, eta Elkarteak eskatzen zaion informazio guztia aurkeztu beharko du aurreko jarduketak gauzatuz.

Se someterá la entidad beneficiaria a las actuaciones de comprobación y seguimiento de las prestaciones subvencionadas que el Ayuntamiento estime oportuno efectuar así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

Entitate onuradunak kontabilitate-liburuak, erregistro diligentziatuak eta gainerako agiriak behar bezala auditatuta eduki beharko ditu, indarrean dagoen legeriak agindu bezala, egiaztatze eta kontrol jarduerak ondo egingo direla bermatu ahal izateko.

La entidad beneficiaria deberá disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación vigente que les compete, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

HAMAIKAGARRENA.- Ez betetzeak eta diru-itzulketak.

UNDÉCIMA.- Incumplimientos y reintegros.

Entitate Onuradunak dirulaguntza gisa jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu denetik itzulketa egin behar dela erabakitzen den arte aurreikusitako interesak itzuli beharko ditu, dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorraren 38 eta 39 artikuluetan jasotako kasuetan eta horiek agindu bezala. Horien artean, hurrengo kasu hauek daude:

La Entidad Beneficiaria deberá proceder al reintegro de las cantidades percibidas en concepto de subvención y de los intereses previstos desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos y conforme prescriben los artículos 38 y 39 de la Ordenanza general reguladora de la concesión de subvenciones, y entre los que se hallan los siguientes supuestos:

HITZARMENA
Zenbakia: 2026-0012 Data: 03/06/2026
Baliozkotze Kod.: [redacted]
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 9

a) Dirulaguntza eskuratu bada eskatutako baldintzak desitxuratuz edo dirulaguntza eskuratzea galaraziko zutenak ezkutatuz.	a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.
b) Jarduera, proiektuaren helburua osorik edo zati bat bete ez bada edo dirulaguntza ematea oinarritzen den portaera ez izatea.	b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.
c) Justifikatu beharra bete ez bada edo behar adina ez bada justifikatu, Ordenantzaren 32. artikuluan ezarritakoaren arabera.	c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente, en los términos establecidos en el artículo 32 de la Ordenanza.
d) Ordenantzaren 9. artikuluko h) letran eta 14. artikuluan agindu bezala, jardueraren finantzazioaren zabalkundearen betebeharra bete ez bada.	d) Incumplimiento de la obligación de difusión de la financiación de la actividad establecida en la letra h) del artículo 9 y en el artículo 14 de la Ordenanza.
e) Indarrean dagoen araudiak aurreikusitako egiaztapen eta finantza kontroleko lanen aurka egin bada, aitzakiak nahiz oztopoak jarri bazaizkie, edo uko egin bazaie, baita ere kontabilitate, erregistro edo dokumentuen kontserbazio betebeharrak bete ez badira, horren ondorioz jasotako diruak zertan erabili diren egiaztatu ezin bada, helburua bete den, edo zeintzuk diren diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna; era berean, edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak izan, helburu bera lortzeko dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eman baditu.	e) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero previstas en la Ley y en la Ordenanza, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentación cuando de ello se verifique la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedente s de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.
Gehiegizko finantzazioa badago, diruz lagundutako jardueren kostuari dagokionez, dirua itzuli egin beharko da.	El exceso de financiación con relación al coste de las actividades subvencionadas también será motivo de reintegro.

HITZARMENA
Zenbakia: 2026-0012 Data: 03/06/2026
Baliozkotze Kod.: [redacted]
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 9

HAMABIGARRENA.- Araubide juridiko aplikagarria.

Hurrengo araudiek arautuko dute hitzarmen hau: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Galdakaoko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Dirulaguntzak Arautzen dituen Ordenantza Orokorra, hain zuzen Udalbatzak 2005eko ekainaren 24ko Osoko Bilkuran onartutakoa eta 2007ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuran aldatutakoa eta berriro aldatuta 2011ko abenduaren 29an.

DUODÉCIMA.- Régimen jurídico aplicable.

El presente Convenio se regirá por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de dicha Ley, y por la Ordenanza General Reguladora de la Concesión de Subvenciones por el Ayuntamiento de Galdakao y sus Organismos Autónomos, aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Galdakao en sesión celebrada el 24 de junio de 2005 y modificada por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 28 de noviembre de 2007 y de nuevo modificada por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 29 de diciembre de 2011.

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmen honen interpretazioa.

Galdakaoko Udalak interpretatu eta ebatziko ditu Hitzarmen hau aplikatzean sor daitezkeen zalantzak.

DECIMOTERCERA.- Interpretación del presente convenio.
La interpretación y resolución de las dudas que de la aplicación de este Convenio pudieran surgir corresponderá al Ayuntamiento de Galdakao.

Eta agertutako alderdiak ados daudenez, dokumentu hau bikoiztuta sinatu dute, ondorio bakar baterako, goian adierazitako tokian eta datan.

En prueba de conformidad de las partes comparecientes firman el presente documento por duplicado y a un solo efecto en el lugar y fecha arriba indicados.

ELEKTRONIKOKI SINATUTA

FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE

HITZARMENA
Zenbakia: 2026-0012 Data: 03/06/2026

Baliozkotze Kod.: [redacted]
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 9